

ALDERDI NAZIONALSOZIALISTAREN PROGRAMA, Munich 1920.

“1.- Aleman guztien birbatzea errebindikatzen dugu, Herrien autodeterminaziorako eskubidea oinarritzat hartuta, Alemania Handi bat sortzeko xedez.

2.- Eskubide-berdintasuna errebindikatzen dugu Herri alemanarentzat gainerako nazioekiko harremanetan, eta Versailles eta Saint-Germaingo bake-itunen ezabaketa ere bai.

3.- Espazioa eta lurak (koloniak) errebindikatzen ditugu, gure Herria elikatu ahal izateko eta gure biztanleria-soberakina bertan finkatzeko.

4.- Hiritarra izateko, ezinbestekoa da komunitate nazionalaren kide izatea, hau da, izaera horren jabe direnak soilik izan daitezke hiritarrak. Odol alemana duena soilik izan daiteke hiritarra, beraren Sinesbidea zeinahi delarik ere [2]. Horrenbestez, ezin judu ezin izango da komunitate nazionalaren kidea izan. [3]

5.- Hiritarra ez dena ezin izango da Alemanian bizi, ostatu-hartzaile bezala ez bada, eta atzerriarrei aplikatzekoa den legedia bete beharko du.

6.- Estatuaren legeak bideratzeko eta sortzeko eskubidea hiritarren eskuetan soilik egon behar da. Eskatzen dugu, horrenbestez, *Reicharen*, Land baten [estatu edo probintzia] edo komuna baten zerbitzuan jarritako funtzio publikoa, zeinahi delarik ere, hiritarrentzat erreserbatuta egon dadila. –Erregimen parlamentarioaren ustelkeriaren aurka borrokatzen gara, zeren postuak alderdien interesen arabera soilik banatzen baititu, hautagaien izaera eta gaitasuna kontuan hartu gabe.

7.- Eskatzen dugu estatuak konpromiso hau har dezala: beste edozer baino lehen, bere hiritarren lan- eta bizi-aukerengatik interesatzea. Ezinezkoa bada biztanleria osoa elikatzea, komenigarria da beste nazio batzuen partaide diren gizabanakoak kanporatzea (hiritarrak ez direnak).

8.- Beharrezkoa da pertsona ez-alemanen immigrazio berri guztia eragozte. Eskatzen dugu 1914ko abuztuaren 2etik aurrera Alemaniara iritsi diren pertsona ez-aleman guztiak *Reichetik* lehenbailehen alde egitera behartu ditzatela.

9.- Hiritar guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak izan behar dituzte.

10.- Hiritar guztien lehenengo betebeharra jarduera intelektual edo fisiko bat gauzatzea izan behar da. Partikularren jarduera ez da interes orokorraren kontrakoa izan behar; aitzitik, orokortasunaren baitan egokitu behar da, guztien probetxurako.

Hona hemen zergatik errebindikatzen dugun:

11.- Lan eta ahaleginik gabe lortutako diru-sarrerak ezabatzea. Interesen murrizketaren deuseztatpena.

12.- Gerra orok Herriari ezartzen dizkion sakrifizio izugarriak ikusita, bai beraren ondasunen gainean eta bai beraren odolaren gainean, Herriaren kontrako krimenezko jo behar da gerraren bidez pertsonalki aberastea. Horregatik, gerraren ondorioz lortutako mozkin guztien erabateko konfiskazioa errebindikatzen dugu.

13.- Orain arte Sozietate (*Trust*) formapean jardun duten enpresa guztien nazionalizazioa errebindikatzen dugu.

14.- Errebindikatzen dugu [soldatako langileek] partaidetza izan dezatela enpresa handien mozkinetan.

15.- Taxuzko sostengua errebindikatzen dugu adineko pertsonentzat.

16.- Erdiko klase mardul baten sorrera eta harentzako babesaren errebindikatzen ditugu. Biltegi handi guztiak komun enpresara pasatzea [5] eta haien lokalak industrialari txikiei merke alokatzea; industrialari txiki guztiei arreta berezia eskaintzea Estatu, Länder [estatu edo probintziak] edo komun hornikuntzan.

17.- Gure beharrezko nazionalizazioaren egokitzeko nekazaritza-erreforma bat errebindikatzen dugu; ondasun higiezinak ordain gabe desjabetzea ahalbidetzen duen lege bat onartzea errebindikatzen dugu, onura publikoko enpresen probetxurako. Lurralde-errenta ezeztatzea eta ondasun higiezinekin egin daitezkeen espekulazio guztia debekatzea.

18.- Borroka irmoa errebindikatzen dugu beren ekintzen bidez interes orokorrari kalte egiten diotenen aurka. Herriaren etsai arruntei, lukurariei, trafikanteei eta gisa berekoei heriotza-zigorra ezarri behar zaie, haien sinesbidea edo arraza zeinahi delarik ere.

19.- Erromatar zuzenbidearen orde germaniar zuzenbide alemana jartzea errebindikatzen dugu, lehenengoa mundu-ordena materialistaren zerbitzuan jarrita baitago.

20.- Gaitasun eta arduratasun egokia dituzten aleman guztiek goi mailako hezkuntza lor dezaten eta erantzukizun-postuetara iritsi ahal izan daitezkeen, estatuari dagokio herriaren hezkuntza orokorra modu sistematikoan garatzen hastea. Ikastetxe guztietako ikasketa-programak bizitza praktikoko beharretara egokitu behar dira. Euren gaitasunek berez ahalbidetzen badute, eskolak lortu behar du gazteek ulertzea zibismoaren zentzua (prestakuntza zibikoa). Errebindikatzen dugu gaitasun intelektual berezia duten baina familia pobreengan jaio diren haurrek estatuaren kontura ikasi ahal izatea, haien talde sozial edo profesionala zeinahi delarik ere.

21.- Estatuari dagokio osasun publikoa hobetzea, ama eta haurra babestuz eta gazteen lana debekatuz; halaber, gorputz-heziketa sustatzera zuzendutako bitarteko guztiak jarriko ditu martxan, hala gimnasiaren eta kirolaren praktikan parte hartzea beharrezko bidez nola gazteen gorputz-prestakuntzan aritzen diren elkarte guztiei eskuzabaltasunez laguntzearen bidez.

22.- Tropa mertzenarioen deuseztapena eta armada nazionalaren sorrera errebindikatzen ditugu.

23.- Errebindikatzen dugu nazioarteko gezur politikoaren aurkako eta gezur hori prentsa bidez hedatzearen aurkako legezko borroka. Prentsa alemanaren sorrera ahalbidetzeko xedez, hauxe errebindikatzen dugu:

a) Alemanez argitaratzen diren egunkari guztietako erredaktoreek eta kolaboratzaileek komunitate nazionalaren kideak izan behar dute.

b) Egunkari ez-alemanek Estatuaren berariazko baimena izan behar dute argitaratu ahal izateko. Debekatuta izango dute alemanez inprimatzea.

c) Ez-alemanek debekatuta izango dute, legearen bidez, egunkari alemanetan finantza-partaidetza izatea eta egunkari horietan eragina izatea; errebindikatzen dugu, orobat, lege hori hausten dutenen zigorra hauxe izatea: egunkaria ixtea eta bertan kooperatu duten ez-aleman guztiak *Reichetik* lehenbailehen kanporatzea.

Guztien ongiaren aurka diharduten egunkariak debekatu beharko dira. Errebindikatzen dugu legez borrokatzea gure herriaren bizian desmoralizazio-eragina duten joera artistiko eta literarioaren aurka, lehen adierazitako errebindikazioen aurkako adierazpenak debekatzeari batera.

24.- Askatasuna errebindikatzen dugu, gure Estatuan, erlijio-sinesbide guztientzat, Estatuaren izana arriskuan jartzen ez badute eta arraza germaniarraren ikusmolde moralei kontrajartzen ez bazaizkie. Alderdia, berez, kristautasun positiboaren ikuspuntuaren alde dago, baina sinesbide aldetik ez du konpromisorik hartzen ezin erlijio konkreturekin. Gure artean eta gugandik kanpo dagoen espiritu judu-materialistaren aurka borrokatzen da, eta sinesten du gure herriaren berreraikuntza iraunkorra barrutik soilik egin daitekeela, guztien ongia ongi partikularren gainetik dagoela dioen printzipioan oinarrituta.

25.- Errebindikazio horiek guztiak gauzatzeko, exijitzen dugu botere zentral sendoa ezar dadila *Reicharentzat*.

Parlamentu politiko zentralak osoko agintea izan behar du *Reich* osoan, eta, modu orokorrean, beraren erakundeen gainean.

Lanbide-ganberak eratu behar dira, *Reichek* dekretatzen dituen oinarritzko legeak estatu federaletan betearazteaz arduratu daitezten.

Munich, 1920ko otsailaren 24a.”